

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATE ELE APLIKATZEAGATIK 2016AN EGINDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN ESLEIPENAK

Iragarkia

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2016ko azaroaren 11n egindako bilkuran, hurrengo diru-laguntzak emateko deialdia onartu zuen:

Mankomunitateko kide diren udalei, 2016. urtean Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako tresna aplikatzeko diru-laguntzak.

AURREKARIAK

1. Diru-laguntzaren helburua

2016ko urtarrilaren 21ean, BAOan argitaratutako oinarrien helburuak hauek ziren:

- a) Udalek onartzen dituzten udalerriko plan orokorretan ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- b) Udalek onartzen dituzten plan partziealei ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- c) Udalerriko egoera soziolinguistikoa alda dezaketen proiektuetan ELE tresna aplikatzea eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea, proiektuaren baimena udalaren esku dagoen kasuetan.

2. Diru-laguntzen onuradunak

Diru-laguntza hauek jaso ahalko dituzte, Mankomunitateko kide izan eta mankomunitateari ordaindu beharreko kuota egunean duten udalek.

EGON DIREN ESKAERAK

Diru-laguntza hauen iragarkia BAOan argitaratu zenetik, honako udal hauek egin dute laguntza jasotzeko eskaria, oinarriak zehazten zuten epean eta lekuan:

- Munitibarko Udala
- Oresako Udala

DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira, diru-laguntzak emateko oinarriek zehazten zituzten irizpideak:

1. Eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteak udalari ekarri dion gastuaren proportzionala izango da, eskatzaileen artean.
2. Diru-laguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehienezko kopuru hau izango du: 8.000 euro.

ELE azterketak egiteko diru-laguntzak partida: 6.000 euro

2016/01 kreditu aldaketan, ELE azterketak egiteko diru-laguntzak partidari 2.000 euroko gehikuntza egin zitzaion. Beraz, guztira 8.000 euroko kopurua banatu ahal izango da.

Partida: 409.335.00

EBAZPEN PROPOSAMENERAKO OINARRIAK

Eskaera Mankomunitateko kide diren bi udalek bakarrik eskatu duela kontuan hartuta, eta diru-laguntza eskaera egiteko bete behar ziren baldintzak betetzen dituztela kontuan izanda,

Proposamena da: Udalek eskatzen duten kopurua bere osotasunean ematea . Gainera, bi Udalek jasoko duten diru-kopuruaren batura diru-laguntza partidari zegoen kopurua baino murriztagoa da.

Orexako Udala: 2.439,36 euro

Munitibarko Udala: 1.978,36 euro. ELE egitearen kostua 2.439,36 eurokoa bada ere, BFAk 461 euroko diru-laguntza emango dio egitasmo horretarako.

Guztira diru-laguntzetan 4.417,72 euro banatuko ditu UEMAK, beraz.

9. Errekurtsoak

Esleipenaren aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango zaio esleipen hau UEMAREN webgunean argitaratzen den egunetik (2016ko urtarrilaren 11tik) kontatzen hasita 15 egunko epean.

Azpeitian, 2016ko abenduaren 28an

Josu Labaka Zurriarrain

UEMAko lehendakaria

Miren Segurola Larrañaga

UEMAko koordinatzailea